



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-04-23**

VIURTEA 1.415.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Berdintasunari buruzko lehen Udal-ordenantza onartu du Udalak

TOLOSA Horrelako ordenantza bat onartzen den lehen udalerrria da EAEn; gainontzekoentzat eredu izango da

ERAGINA Udalaren funtzionamenduan nahiz arlo pribatuan nabariturako dituzte ondorioak herritarrek 2



TAKeko neskak igandeko saioan, Pasaian. m.o.

TAK-EKO SENIOR NESKAK EUSKADIKOAN ONENAK

ARRAUNA Gipuzkoako Batel Txapelketa irabazi ostean, Euskadiko Txapelketa irabazi zuten igandean Pasaian; TAKeko jubenil neskek bigarren geratu ziren, eta etorkizun mailakoak, berriz, hirugarren 6

**V. Hitza Pilota
Txapelketako
partidak hasi dira 4**

**175 dantzari,
igandean
Ikaztegiako
I. Dantzari Txiki
Egunean 5**

**1. ÑAÑARRI
RALLY ESPRINTA**
ALEGIA - ORENDAIN - ABALTZISKETA - AMEZKETA

**2008ko
APIRILAREN 26AN**
EGIAZTAPENAK:
10:00ETATIK
12:00ETARA
LEKUA:
ALEGIAKO
HERRI ESKOLAN
IRTEERA:
15:00ETAN,
ALEGIATIK
ERREPIDEA
MOZTEA:
14:00ETAN
SARI BANAKETA:
AMEZKETAKO PLAZAN

**Arurako
Ikastola** **eraikitzen** **hasi da** **PRIMERAN
PASA
GABE**



Ordenantzaren aurkezpen ekitaldian izan ziren, ezker-eskuin: Izaskun Moyua, Jokin Bildarratz, Onintza Lasa eta Jone M. Hernandez. ESTI EZBIZA

Udalak berdintasunari buruzko lehen Udal-ordenantza onartu du

Gizartea » Hau onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko lehen udalerrria da; gainontzekoentzat eredu izango da ziurrenik.

ESTI EZBIZA

2005. urteko martxoan Berdintasunerako Legea onartu zen Eusko Legebiltzarrean. Honenbestez, atzo, hau aplikatu ahal izateko ordenantza onartu zuten Tolosako Udal ordezkariak goizean burutako Osoko Bilkuran. Ordenantza hori «ezinbesteko tresna» izango da berdintasunaren bidean Tolosan eta lagungarri izan daiteke beste udal askorentzat.

Tolosako Udalak da, Euskal Autonomia Erkidegoan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko Ordenantza onartzen duen lehen herria. Hala, Tolosako alkate eta Eudeleko lehendakari den Jokin Bildarratzen esanetan, «gainontzeko udalerrientzako adibide izan nahi dugun». Horretarako, Berdintasunari eskaini zaio Ordenantza, honek eruduztat har dezan. Izan ere, 36 herritik gora daude sartuta Berdintasunarean.

Ordenantzaren aurkezpena

Ordenantza hau egiteko garaian Emakunderen laguntza izan du egiteko horretan, bai eta Maria Angeles Barrera eta Jone M. Hernandez EHUKo irakasleena ere. Udaletxearen barne funtzionamendurako ez ezik, udalerriko giza ekintzetara ere zabaldu nahi da ekimen hau. Herriaren baitan eragin handia izango duelarik.

Udal-ordenantza honen bitartez, Tolosako Udalak berdintasunaren alde hartutako konprometuzua jakinarazteaz gain, gainerako instituzio publiko, herri-erakunde nahiz erakunde pribatu desberdi-

» TOLOSako UDALAREN BERDINTASUNERAKO ORDENANTZAREN KAPITULUAK

- Xedapen orokorrak.
- Ordezkaritza politikoa eta udal organoaren osaketa.
- Berdintasunerako zerbitzua.
- Berdintasunaren aldeko udal politika sustatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko egiturak.
- Udal administrazioko langileak prestatzea eta trebatzea.
- Parte-hartzea politikan eta gizar-te bizitzan: Berdintasunerako Kontseilua.

- Berdintasunerako plana.
- Udal azterketa eta estatistikak.
- Genero inplikatu udaleko araudi eta jardueran.
- Udal langileen eta zerbitzu-enpresetako langileen berdintasuna bai enpleguari dagokionez, bai bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeari begira.
- Lahiaketa eta kontratu publikoak.
- Diru laguntzak ematea.

- Komunikabideak.
- Gizarte zerbitzuak, zaintzak eta erantzukidetasuna.
- Emakumeen aurkako indarkeria.
- Hiri eta toki plangintza.
- Etxebizitza.
- Segurtasuna.
- Mugikortasuna eta garraioa.
- Ingurumena.
- Senidetzeak eta nazioarteko lankidetasuna.
- Azken xedapena.

nek ordenantza horretan jasotzen dena abian jartzeko neurriak har ditzatela ere lortu nahi da, elkarren arteko lankidetzaren bidez.

Udalak Osoko Bilkuran onarpena eman ostean, Berdintasuneko teknikariak aurkeztu zitzaizkien Ordenantza, geroago, oinarritzat hartuta eredu bat garatzeko. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Jokin Bildarratz alkatea; Izaskun Moyua Emakundeko zuzendaria; Onintza Lasa, Berdintasun zinegotzia; Jone M. Hernandez EHUKo irakaslea eta Josebe Iturrioz, Udaleko Berdintasun Eragilea.

Izaskun Moyuaren esanetan, «Berdintasun politika guztiak eraginkorrak izan, eta egonkortasuna bermatu behar dute. Honez gain, garrantzitsua da energia eta ilusioa izatea, eta eskatzen dituen gauzetako batzuk dira esfortzua eta lana». Bestalde, Onintza Lasak azaldu bezala, «Udaletxea da herritarrengandik gertuen dagoen administrazio organoa, eta honek eragin behartua izan dezan sortu da Ordenantza». Gainera, azpimarratu zuen, Udal-ordenantza hau herritarren aldarrikapenei emandako erantzuna dela. Izan ere, 2003an, Tokiko Agenda 21ean eragindako gogoeten artean, tolosarrek agertu zuten, Udalak genero ikuspegia izan behar zuela.

Zer da Ordenantza bat?

Tokiko gobernua arlo honetan esku hartzeko erabilten duen oinarritzko araua da Ordenantza. Berdintasunaren inguruko gaiari dagokion garrantzia eman, eta bete beharreko arau-maila ematen diona. Ordenantza hori Berdintasunari buruzko Legean dago oinarrituta. Lege horrek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ezartzen du, lehenetsun gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko botere eta administrazio guztietan. Horrez gain, toki maila eta Legearen aplikazio-eremua uztartzen ditu.

22 kapitulu eta hirurogei artikulutan egituratuta dago, eta horien bidez udal politika aktiboa zabalduko da gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez. Udalaren funtzionatzeko egituran nahiz gizarte edota herritarren aurkezteko proiektzioan eragin zuzena du, gai desberdinei dagokionez: mugikortasuna eta garraioa, segurtasuna, etxebizitza, hirigintza, elkar aditzean, hizkuntzan...

Eudelen apustua

Eudelek bere aldetik, euskal udal guztietara helaraziko du. Osoko Bilkuran onarpena eman ostean Udalerri bakoitzak bere ezaugarrietara egokitu dezan. Eudel bereziki inplikatu zen berdintasune-

rako eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako udal politiketan 2001ean, akordio honetan parte hartu zuenean: Etxeko Tratu Txarren eta Eraso Sexualen Biktime diren Emakumeenganako Arreta hobetzeko Erakunde Arteko Akordioa. Urte horretan, indarkeriaren kontrako beste sentsibilizazio kanpaina batzuetan ere parte hartu zuen. Eudelek jauzi kualitatibo aipagarria eman zuen, Berdintasuna eratu eta arlo horretan konprometuzko hartu zituenean bere gain.

Eudelek eta Emakundek sortu zuten Berdintasuna eta 36 udalerrik osatzen dute egun. EAeko herritarren %70a erdezkatur. Udalen arteko lan esparrua izan nahi du, bizi eta eraginkorra, berdintasunaren alorrean tokiko instituzioen erantzuna indartzeko balio duena. Berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra toki administrazioetatik kudeatutako programa eta zerbitzuak sustatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea da bere egiteko nagusia. Horretarako, jarduteko nahiz ebaluatzeako irizpideak zehaztu behar dira, tokiko akzio publikoaren maila guztiak barne hartuko dituen jardueraren baten bidez. Berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeria gaitzetsiz.

L Laburrak

Txapin festa antolatzeko bilera izango da bihar

GIZARTEA » Tolosako gazteek Txapin Festa antolatuko dute. Hau maiatzaren 17an izango da. Baina maiatza prestatzeko hainbat bilera egingen ari dira, eta horietako bat bihar iluntzean izango da. Batzarra 20:00etan izango da Kultur Etxean.

Herri Batasunaren urteurrena ospatzeko festa

POLITIKA » Herri Batasunaren 30. urteurrena betetzen da hilaren 27an. Hori dela eta, Durangon ekitaldi nazionala ospatuko da larunbatean, 17:30ean. Bertara joateko autobusa antolatuko du Tolosako ezker abertzaleak. Hau 15:30ean aterako da Triangulotik, eta bertan joan nahi duenak Raku tabernan eman behar du izena.

Ezker abertzaleak batzarra deitu du astearterako

POLITIKA » Ezker abertzaleak batzar irekia deitu du datorren astearterako. 20:00etan izango da eta bertan, besteak beste, hurrengo hilabeteetarako erronkak aztertuko dituzte.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 652 339

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Germikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalaitzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Salvadorako babeseko etxebizitzetan izena emateko aukera zabalik

ERREDAKZIOA

Villabonako Salvadora eremuan babes ofizialeko 49 etxebizitza eta garajeren zozketa egingo dute. Zozketan parte hartzeko Etxebizitzak izena eman behar da maiatzaren 15a baino lehen edo dagoeneko bertan alta emanda egon. Eskatzaileek ezingo dute beste etxebizitzarik eduki jabetzan.

Erroldatzeari dagokionez, 2003ko maiatzaren 15etik edo lehenagotik gaur egunera arte, etxetik gabe, erroldatuta egotea Villabonako edo gutxienez 15 urtez erroldatuta egon izana eta gaur egun Villabonako erroldatuta egotea eskatuko da. Ahalmen ekonomikoari dagokionez, legeak zehazten dituen irizpideak jarraituko dira. Hau da, gehieneko diru sarrera ponderatua urtean 33.000 eurokoa izango da eta gutxienez 9.000 eurokoa. Mugikortasun urria duten ezinduen kasuan, aski izango da urtean 3.000 euroko gu-

txieneko diru sarrera egiaztatzea. Diru sarrera horien justifikazioa 2006ko ekitaldikoa izan beharko du.

Etxebidek onartutako en zerrrenda pasako dio Udalari eta hauen artean egingo litzateke zozketa. Izena ematen duten guztiei aurretik jakinaraziko zaie zozketaren data eta lekua. Urtea amaitsu aurretik egiteko asmoa dute.

Eraikiko diren etxebizitzetatik zazpi 3 gela eta 2 bainu izango dituzte; berrogeik, 2 gela eta bainu bat; eta bik, gela bat eta bainu bat. Azken bi hauek 40 m² ingurukoak izango dira eta gainontzekoak, 57 eta 81 m² artekoak. Aipatu 49 etxebizitza hauetatik bi ezinduak diren pertsonaie esleitzeko prestatuak daude. Jabetza erregimenean erosten dira etxebizitzak eta salmenta prezioak legeak ezartzen dituenak izango dira. Etxebizitzarekin batera ezinbestean garaje ireki bat erosi beharko da.



Arturrelo di Popoloren emanaldia Antzerki Astearen baitan. HITZA

Balantze «ona» egin du Udalak Antzerki Asteaz

Zizurkil » Haurrei zuzendutako antzezlanek «ondo funtzionatu» dutela adierazi du Ainhoa Larrea kultur teknikariak.

IMANOL GARCIA

Pasatu berri den Zizurkilgo VI. Antzerki Astearen balantzea «ona» izan da, Ainhoa Larrea kultur teknikariak azaldu duenez. «Haurrei zuzendutako antzezlanek ondo funtzionatu dute. Helduak ez dira hainbeste animatu eta gustatuko litzaiguke gehiago joa-

tea beraientzako antzezlan gehiago jartzeko ere».

Haurrei zuzendutako emanaldi asko hitzartuak ziren, hau da, ikusentzule jakin bati zuzendutakoak. «Aukeraketa ona izan da eta gustura egon dira haurrak», azaldu du Larreak.

Otañokoak antzezele

Aipatzekoa da aurreko osteguneko Pedro Mari Otaño eskolako LHI eta LH6ko ikasleek egindako emanaldiak. «Ikusi zen landutako antzezlanak zirela. Udalarren alde-rik zorian zirela da egin duten lana eta animatu nahi ditugu herri-

ko beste eskolek ere parte hartu dezaten Antzerki Astearen emanaldiak egiten», dio kultur teknikariak.

Herritar guztiei irekita zeuden emanaldiek «erantzun ona» jaso dutela azaldu du Larreak. «Ostiraleko emanaldia adin guztiei zuzendutakoa zen eta espero genuen heldu gehiago izango zirela». Larribateko kale antzerkia frontoian egin zen eta ehun lagun inguru bildu ziren Trapu Zaharra taldearen emanaldiaz gozatzera. Igandean Xurdirinen emanaldia egon zen eta 120 bat lagun izan ziren bertan.



AAMko auzipetuei babesa

IBARRA » Herenegun goizean hasi zen Amnistiaren Aldeko Mugimenduen aurkako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalan. Epaietaren hasierarekin bat Ibarren elkarretaratzea egin zuten auzipetuei babesa adierazteko. ASIERIMAZ

Laburrak

I. Ñañarri Ralysprintaren inguruko bilera, gaur

IRURA » KMK-08ren ekimenen baitan antolatuta dute I. Ñañarri Ralysprintaren inguruan gaur 19:00etan Irurako Ikastolako areto nagusian bilera informatibo bat egingo dute. Bertan, KMK-08ren koordinatzaileak ralysprintaren nondik norakoak bertaratutakoie azaltzeaz gain izena eman duten guztiei egun bertan egin beharreko lanak zein izango diren azalduko zaie. Oraindik izenik eman ez dutenek bertan egin ahal izango dute.

Ezohiko osoko bilkura egingo du gaur Udaltzatik

VILLABONA » Udaltzatik ezohiko osoko bilkura deitu du gaurko, 20:00etan, udaletxeko pleno aretoan. Bertan ondorengo gai zerrrenda jorratuko dute: Kutxan Udala ordezkatuko duen kontseilari orokorra eta horren ordezkoa izendatzea; eskualdeko kontsumitzailearen bulegoa (KIUB) aurrera eramateko Tolosaldea Garatzen S.A. garapen Agentzia eta Tolosa, Ibarra eta Villabonako udalen arteko hitzarmenaren luzapena onartzeko proposamena.

Euskarazko film laburrak ikusteko aukera etzi Atxulondon

Zizurkil » Topagunearen Euskarazko Film Laburren Zirkuituaren baitan, Tolosaldean ikusteko azken aukera izango da.

ERREDAKZIOA

Apirilaz geroztik Euskara Elkartearen Federazioak, Topagunear, antolatutako Euskarazko Film Laburren Zirkuitua herriz herri dabil Euskal Herri osoan barrena. Beterri-Aitzondon eta Tolosaldean ere emanaldiak antolatuta dituzte Manuel Larramendi Kultur Bazkua eta Galtzaundi Euskara Taldeak. Izan ere, apirilaren 11n jada Ibarren eskaini zen eta, etzi, zirkuitu horren emanaldiaz gozatzeko azken aukera izango da eskualdean. Zizurkil, Atxulondon kultur etxean, izango da, 20:30ean.

Aurtengoa bosgarren zirkuitua da, eta bertan azken urteetan euskaraz sortutako sei film labur, bi-deoklip bat eta ikus-entzunezkoen rallyan saritutako hiru lan ikusi ahal izango dira ordu bete iraungo duen emanaldian. Euskarazko ikus-entzunezkoen alorrean sartzaila gazte berriak sormen handiz datozela egiaztatuta ahal izan da orain arte beste herrietan zirkuitu honen izan dituen emanaldietan. Sormen handiko lanak eta baita kalitateko ekoizpenak ere tardean.

Bosgarren zirkuitu honetan hauek izango dira Atxulondora joaten diren ikusi ahal izango dituzten lanak: *Unrest* eta *All aboiut eyes* Gentzane Agirrearenak; *Azken tren* Mikel Alvarezena; *Columba palumbus*, Koldo Almandozena; *Momorro* Asier Mendozarena eta *Izalak* Inigo Kintanarena. Sei film labur horiekin batera, Logela Mul-

timediai ekoizturiko *Ardauaren negarra* izenburuko biodeklip eta ikus-entzunezkoen rallyko hiru lan: Kalageli taldearen *Anteojodunak*; Gaizko Fanarraga eta Ibon Antuñanoren *Zeruari* eta Trastaka Ekoizleak taldearen *Bestaldean*.

Aipaturiko film labur guztiak ordu beteko saio bakar horretan ikusi ahal izango dira. Emanaldien amaieran, berriz, Mikel Alvarez zuzendariarekin solasaldia egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Sarrera doan izango da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

V. Hitza Pilota Txapelketako lehen pilotakadak hasiak dira eskualdean

Pilota » Astero-astero izango dira partidak sei herri eta maila ezberdinetan: ekainean izango dira final guztiak.

NEREA URBIZU

Herenegun iluntzean V. Hitza Pilota Txapelketa aurkeztu zuten. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK adina urte bete ditu, beraz, txapelketa honek. Urtero bezala, gero eta indar gehiago hartzen ari den pilota txapelketa honetan Tolosaldeko herri askoren laguntza behar izan da, frontoi ezberdinetan jokatu baitituzte maila ezberdineko partida guztiak. Berastegin, Albizturren, Adunan, Bidegoianen, Alegian eta Tolosan, hain zuzen ere.

Txikiak, umeak, kozkortuak, kadeteak, jubenilak eta seniorrak ariko dira astero-astero jokatzeko, bakoitza dagokion frontoian. Guztira 21 pilota eskola ariko dira, eta hauek dira: Aurrera-Saiatz, Behar Zana, Zazpi-Iturri, Erniope, Alegia, Gazteleku, Lazkao, Umoro Ona, Goierrri, Txapagain, Ilunpe, Erreka, Oiarpe, Añorga, Andazpe, Hernani, Bergara, Zugarralde, Txaruta, Elordi eta Murumendi.

Partidak, beti bezala, adinaren arabera herri eta ordu ezberdinetan jokatuko dituzte. Seniorrak Tolosako Beotibarren izango dira larunbat goizetan.

Maila guztietan binaka egingo dituzte partidak, kadeteen mailan izan ezik. Eskuz banaka egingo di-



Luis Galarragak moldatu du txapelketako egutegi guztia. IMANOL GARCIA

tuzte, lau terdiaren baitan. Atzo iluntzean bertan, asteartea izaki, hasi ziren kadeteak jokatzeko.

Kadeteak, jubenilek eta nagusiek kanporaketa sistemaren bidez jokatuko dute, hau da: galtzen duen pilotariak edo bikoteak ez du berriz jokatzeko aukerarik izango. Final-laurdenetako pilotariak ere zehaztuta daude maila hauetan.

Bestalde, arautegiaren baitan Luis Galarraga antolatzaileetako kideak eta Aurrera-Saiatz pilota eskolako delegatuak zera adierazi du: «Pilotariak partidaren batera etortzerik ez balute, ordezkoa bi-

daltzea komeni da, egutegia oso egokitu baitago, eta atzeratzerik ez da onartuko».

Puntako pilotariak kantzari

Hitza Pilota Txapelketa pilotari onen partidak ikusteko txapelketa ere da: aurreko urteetan aritutako asko profesionalen mailan dabitzak. Pilotari on asko ez dira ikusi ahal izango, goi-mailan dabiltzalako, baina lekua egiten zaie atzetik datozenei. Aurten ez dira izango, beraz, Garmendia, Olaetxea edo Huarte.

Profesionalak dira pasatzen

atzetik datozen pilotariak Beotibarren ariko dira larunbat goizeko, zehazten joango diren orduetara baitan.

Finalak ekainaren erdialdean

Berastegin frontoian larunbatean Zinkunegi-Elola, Agirretxe-Artola, Zubillaga-Lezea eta Olano-Arin pilotariak ariko dira: guztiak etxekoak dira, Aurrera-Saiatz pilotako eskolakoek izenean, hain zuzen.

Alebinen artean lau partidetan etxekorik ez da izango Albizturren. Infantiletan, etzi, Aurrera-Saiatzko Galarraga-Salbarredi Behar Zanakako Riko-Otaegi ariko dira lehen partidari. Ondoren, Aurrera-Saiatzko Maiza-Elustondo, Zelaia-Labaka eta Garaikoetxea-Balardi.

Finalak ekainaren erdialdean

Sei mailatako finalak, partidaren errespetatuz gero, ekainaren erdialdean jokatuko dira dagokion pilotalekuan. Sari banaketa, berriz, Beotibarren egingo da, udaletxe ezberdinetako jendearekin eta txapelketako hainbat antolatzaileekin batera.



Txapelketa ekainaren erdialdera bukatzen da, Beotibarren. I. TERRADILLOS

» NORGEHIAGOKAK

- **Benjaminak edo txikiak.** Berastegin larunbatero, 18:00etan.
- **Alebinak edo umeak.** Albizturren ostiralero, 19:00etan.
- **Infantilak edo kozkortuak.** Adunan ostiralero, 19:00etan.
- **Kadeteak.** Bidanien, asteartero, 19:00etan.
- **Jubenilak.** Alegian ostiralero, 20:00etan.
- **Seniorrak edo nagusiak.** Tolosan, larunbatero, 10:00etan edo 11:00etan egunaren arabera.

GRAVNe finalaurrekoak

GRAVN Pilotako Txapelketako finalen lurralde bat segurua da: Nafarroa. Aurkaria erabakitzeke dago, asteburu honetan. Gipuzkoa eta Bizkaia lehiatu beharko dira hainbat mailatan. Gipuzkoako 22 urtez azpikoak eta nagusiak ariko dira larunbatean bertan Beotibarren: arerria, Bizkaia.

16:30ean hasiko dira lau norgehiagokak. 22 urte azpikoetan eskuz banaka Senperena ariko da, eta binaka, berriz, Intsausti-Uzkudun. Nagusien mailan eskuz banaka Bengoetxea izango da, eta binakako partidari Elurbe-Irureta pilotariak lehiatu beharko dira bizkaitarren aurka. Partidak irabaziz gero, Nafarroarekin lehiatu beharko dute.

hazi
nahi duten
pertsonentzat

Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Ikastaro guztiak bi orduko hiru saiotan egingo dira, asteartetan, asteazkenetan eta ostegunetan, 19.00etatik 21.00etara.

Donostialdea: maiatzak 6, 7 eta 8
Ordizia: Lagartzi Kultur Etxea

Goierrri: maiatzak 6, 7 eta 8
Ordizia: Barrena Kultur Etxea

Tolosalde: maiatzak 13, 14 eta 15
Tolosa: Antonio M. Labaien Kultur Etxea

Urola Garaia: maiatzak 13, 14 eta 15
Zumarraga: Zelaia Añuri Kultur Etxea

Oarsoaldea: maiatzak 20, 21 eta 22
Errenteria: Reina Aretza

Urola Erdia: maiatzak 20, 21 eta 22
Azapitea: Sindikatu Zaharretako Aretza

Buruntzaldea: maiatzak 27, 28 eta 29
Hernani: Bizen Kultur Etxea

Urola Kosta: maiatzak 27, 28 eta 29
Zasuti: Sanz Enea Kultur Etxea

Bidasoa-Txingudi: ekainak 3, 4 eta 5
Irún: Anasía Kultur Zentroa

Debabarrena: ekainak 3, 4 eta 5
Eibar: Portales Kultur Etxea

Debagoiena: ekainak 10, 11 eta 12
Aizasua: Kulturatzeko Kultur Etxea

Donostialdea: ekainak 10, 11 eta 12
Donostia: Udako Liburutegiko Eskola Aretza

Izena emateko

Ikastaroak doan dira, eta izena emateko Baketik-ekin harremanetan jarritas baino ez duzu ondorengo bide hauek erabili.

943 25 10 05 partehartu@baketik.org www.baketik.org

Parte hartzen

persona eta gizarte moduan hazten gara

Laguntza

Antolatzaile

Kolaboratzaile



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



kultura berria
programa de participación cidadana de la cultura



Ikaztegieta I. Dantzari Txiki Eguna antolatu dute datorren igandean

Ikaztegieta » Tolosaldeko bederatzi herrik hartuko dute parte. Kalejiraren ondoren, 12:00etan plazan bilduko dira 175 dantzari.

NEREA URBIZU

Datorren igandean, estreinakoz, Ikaztegieta Dantzari Txiki Eguna egingo dute. Goizean zehar izango da. Garazi Bengoetxea bilabonatarra da irakasle berria eta hari bururatu zitzaion Ikaztegieta Dantzari Txiki Eguna antolatzea. Helena Larrañaga kultur zinegotziak adierazi zuen irakasleak «pena» zela «beste herrietara ez joatea». Udalari, beste herrietako dantzariak gonbidatzeko laguntza edo babesa eskatu zitzaion, eta Udalak baiezkota erantzun zuen.

10:30a aldera autobusetan dantzari txiki guztiak elkartzeko dira kiroldegian, eta kalejiran plazaraino joango dira, trikitalari eta txistularien laguntzaz. Bertan, ondoren, hamaiketako izango da. «Gurasoek ere jatekoak eta edatekoak izango dituzte prestatuko dugun barra



Ikaztegieta Dantzari Txiki eguna iragartzeko kartela. HITZA

edo tabernetxoan: ateratako dirua Ikaztegieta dantzarietarako izango da. Honela, arropak, autobusen bat, eta bestelakoak ordaindu ahal izango dituzte».

Ikaztegieta Guraso Elkarteak «ahalegin berezia egin du» hamaketako hau prestatzen.

Guztira 175 dantzari txiki

12:00etan dantzarien saioa izango da. Guztira 9 herrietakoak bilduko dira: Ikaztegieta, Alegiakoak, Villabona, Altzo, Anoeta, Ibarra,

Irura, Alkizakoak eta Tolosakoak, hain zuzen. Guztira, 175 bat dantzari. Bakoitzak bina dantza egingo dituzte, eta bukatzeko denek batera dantza saioa bat.

Gaur egun, Ikaztegieta dantza taldeak 30 bat dantzari ditu. Txikiak 5 urte ditu, eta zaharrenek 15 urte inguru. Adin batetik aurrera, Oinkari dantza taldean aritzeko aukera daukate eta gero, Ikaztegieta dantzarietarako irakasteko balio zaie. Igandean, txikiak dantzatu dute.

2-9 irabazi dio Laskorainek Gallartako Meatzari taldeari

ERREDAKZIOA

Tolosako Laskorain areto futbol taldeak 2-9 irabazi zion Gallartako Meatzari, sailkapeneko azkenari, hain zuzen. Partidak ez zuen erakargarritasun handirik izan. Meatzari sailkapeneko putzuan dago aspaldi: nola hala, beste jardunalditan bezala laskoraindarrek puntuak pilatzen jarraitu nahi zuten goiko postuei eusteko.

Partidak kolore bakarra izan zuen, tolosarren horitxoak. Hasieratik nagusi izan ziren eta meatzari

riek zirikitu txikiena ere ez zuten aurkitu punturik eskuratzen. Atsedendiko 0 eta 5-koa esanguratsua da zeharo eta amaierako 2 eta 9-koa berdin.

Zerbait aipatzekotan golegile laskoraindarrek aipatu behar eta aurreko asteburuan bezala, horitxorik gazteak izan ziren protagonistak nagusi. Gil-ek bigarren zutoienan baloia kokatzen iaioa dela erakutsi zuen, Murgik bigol sinatu zituen, eta Zabalak lehenengoak egin zuen.

Barriolak sartu zituen beste bi golak, eta bederatzigarren golak berriz eztabaida piztu zuen. Barriolaren erdiraketa baten ondoren etorri zen, defentsa bizkaitar bati jo ondoren, baina tartean Otxoa agertu zenez defentsa nahastuaz ibartarrak berak sartu zuela zioen amaieran. «Futboleko telekinesia bidez sartutako historiako lehenengo gola ikusi ote genuen erantzuten zion batek baino gehiagok». Beraz, 53 punturekin hirugarren daude horitxoak.

Laburrak

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute

IKAZTEGIETA » Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Ikaztegieta Udalak autobusa antolatu du «nahikoa jende apuntatzen bada» (22 lagun). Izena Udal bulegoetan eman behar da eta epea maiatzaren 7an bukatzen da. 6 euro balio du eta 09:00etan abiatuko da.

Rally esprintaren garaian ibilgailurik ezingo da erabili

AMEZKETA » Larunbatean, kilometroen egitarauaren baitan I. Ñañarri Rally esprinta egingo da Amezketan. Hortaz, Alegiatik Orendainerako eta Abaltzisketarako eta Amezketatik Abaltzisketarako errepedeak ibilgailuentzat moutz egingo dituzte arratsaldean.

Gaur, gizarte eta ongizate eta ingurumeneko bilerak

AMEZKETA » Amezketako gizarte ongizate eta ingurumena batzordeak gaur bilerak egingo du balioaitzeko gelan, 20:30ean. Jorratuko dituzten gaien artean haur eskolako jolastokia, ur kudeaketa egokia, pistak eta osasun zentruko kekek daude. Bilerak irekia da.

TB Digitala 70

Zure seme-alabentzat atsegin duzun telebista, zuk atsegin duzun prezioan.

Hemen da Euskaltelen TB Digital berria.

70 kanalik onenak, hilean **14,1 €** bakarrik ordainduta

Haurrentzako saloak: punta-puntakoak eta kulturarekin onenak. Punta-puntako serieak, zinemak, dokumentalak, kirolak... Inoiz ez da egon hain telebista orrik, ezta hain merke ere. Adieraz, telebista hobea, demoratu, jorrotatu, osatu, Euskaltelen bakarrik.

euskaltel zuretzat

10!

Beste 1717tik...
edo astaz Euskaltelen zaharrik.

© 2008 Euskaltel

TB Digitala zure seme-alabentzako haur 70 eta 6 kanalen demokrazia egingo da Orange 4 H eta herri guztietan erabiltzeko aukera, eta 6 kanalen demokrazia TB Digitala 70 eta herri guztietan erabiltzeko aukera. TB Digitala 70 kanalen demokrazia egingo da 1.1.2008tik aurrera. TB Digitala 70 kanalen demokrazia egingo da 1.1.2008tik aurrera. TB Digitala 70 kanalen demokrazia egingo da 1.1.2008tik aurrera. TB Digitala 70 kanalen demokrazia egingo da 1.1.2008tik aurrera.

G Gutunak**Ibarrako EAJ/EA, presoak eta dilema**

Ibarrako PSOEren zinegotziak presoen senideek euren bidai luzeetarako jasotzen dituzten diru laguntzak murriztu nahi ditu. Egun, hilabetean 4 bidai ordaintzen zaizkie, proposamena aurrera ateraz gero; proposamenak preso eta senide zuzena Ibarran errolatua egotea exijitzen du eta diru laguntzek kopuru mugatua izango lukete, hau da, egun espetxera joateko arriskuan dauden

zazpi gazteak kartzelaratu baliatuzte, hainbesteko preso kopurua izanik posible da hilean bidaia bakar bat ordaintzera ere ez iristea.

PSOEren zinegotziaren proposamena erabat miseria da, izan ere mina eginda dago jada: presoak espetxeratu aurretik bortizki torturatua da normalean; lehenbiziko graduak (gogorrena!), isolamenduan edo erregimen itxian bizirautea behartua dago ziurrenean; legez (euren legez!) aratuak dituen aktibitateak ukatuak zaizkio sistematikoki; kartzelerorik faxis-

tenak eta oldarkorrenak ditu parean, bizi osoko zigorra du aurretik. Senideak, asko adinekoak, ehunka eta milaka kilometro egin behar ditu astero, gehien maite duenaren falta eraman gainean, kartzeleroen probokazioak jasan, polizi ezberdinen errepresioa pairatu presoek aldeko protesta eta ekimen baketsuetan. Preso eta senideen mina bene-benetakoa da, sakona, etenik ez duena.

Min hori PSOEek eragiten du dispersio politikaren bitartez, eta kasu honetan bezalaxe behatza-

zaurian sartzen du, ankerkeriaz, min gehiegi jasaten duen senidea ekonomikoki itoz.

Baina PSOEek bere proposamen etiko eta morala aurrera ateratzeko EAJ eta EAren babesa behar du eta azken hauek dilema baten aurrean aurkitzen dira. Izan ere, Ibarrako herriak maite ditu bere presoak. Herriarrak atxilotuak izan direnean mobilizatzeko aparteko gaitasuna erakutsi du, greba orokor bat antolatzeraino iritsiz 2002ko urrian. Herriarrak aske geratu izan direnean beste horren-

beste. Ehunka eta ehunka izan dira ongietorri beroa ematera hurbildutakoak, asko eta asko EAJ-EAko boto emaileak edo ezker abertzalearekin bat egiten ez dutenak. Herriak bere-bereak ditu presoak.

Dilema argia da: PSOEren delirio errepresiboari men egin (beste behin ere!) edo presoek senideei euren bidaia amaigabeak ordaintzeko diru laguntzak mantendu dispersioaren karga itzela arinduz.

Ion Mintegiaga. Ibarra.



TAKeko senior neskak jaun eta jabe izan ziren larunbatean eta igandean, Euskadiko batelen lehia irabaziz. MIKEL OZAITA

TAKeko senior neskak Euskadiko txapelaldun

Arrauna » Gipuzkoako Batel Txapelketa irabazi ostean, iragan asteburuan Euskadiko Batel Txapelketa irabazi zuten.

ASIER IMAZ

Euskadiko Batel Txapelketa jokatu zen iragan asteburuan Pasaiaiko (Gipuzkoa) uretan. Larunbatean kanporaketa lehiak jokatu ziren eta igandean Txapelketa. Tolosaldeak hirur batel sartu zituen Txapelketako lehian, maila ezberdine-

tan kokaturik. Federakuntza lehian berriz, beste hirur batel sartu zituen TAKek.

Senior neskak txapelaldun

Gipuzkoako Batel Txapelketa irabazi ostean, Tolosaldea taldeko senior neskak Euskadiko Batel Txapelketa irabazi zuten igandean, nagusitasun handia erakutsiz gainera. Bigarren geratu zen Ondarrruri 12 segundo atera zizkion. Deustu, hirugarrena, 19 segundora utzi zuten eta laugarrena, Arkote, 33ra.

Jubenil neskak bigarren geratu

ziren Txapelketaren lehian, Pasaia Donibane taldearen atzetik 5 segundora. Etorkizun mailan, Tolosaldeko batela hirugarren geratu zen.

Federakuntza sarian 3 talde

Larunbatean Txapelketaren lehiatik at geratu ziren taldeek Federakuntza saria jokatu zuten igandean. Bertan Tolosaldeak beste hirur batel sartu zituen. Haurren mailan hirugarren geratu ziren mutilak. Kadete eta Jubencil mailako mutilak ere postu bera lortu zuten Federakuntza sarian.



Mus Txapelketa eta elkartasuna

LEABURU-TXARAMA » Txaraman 28. Etxeberritxuren omenezko Mus Txapelketa jokatu zen asteburuan. Bertan Joxe Luis Adurriaga eta Lontxo Aranalde izan ziren onenak. Eider Ijurko, preso politikoa ohiak, banatu zituen sariak eta «6 urte hauekako elkartasuna» eskertu zuen. Elkarteko kideek ongietorri afaria egingo diote Ijurkori maiatzaren 9an, eta izena emateko zerrendak elkartean aurkitzen dira. A. IMAZ

Laburrak

Elkarretaratzea eta herri batzarra bihar

LEABURU-TXARAMA » Hilabeteke azken osteguna denez bihar, ohiturari jarraituz Leaburuko plazan «preso eta iheslari politikoan aldeko» elkarretaratzea egingo dute 20:00etan. Herriko ezker abertzaleko kideek jakinarazi dutenez, ondoren, 20:30ean, herri batzarra egingo dute Gazte Gelan. Bertan egungo egoera izango dute aztergai.

Bihar 17:00etan Uzturpe antolatutako hitzaldia

IBARRA » Uzturpe Ikastolak antolatuta, bihar 17:00etan Izar Arregi psikologo klinikoak, Haur Hezkuntzako irakasle eta guraso nahiz interesa duen edonorentzat 2-6 urteko haurrak eta autoritatea izeneko hitzaldian *Mugak nola jarri* gaiari buruz ariko da Kultur Etxean. Hitzaldia dirauen bitartean, ludoteka zerbitzua egongo da 2 urtetik gorako haurrentzat.

H Hilberria

LUISURRETABIZKAIA ARANBURU

Herenegun hil zen, 81 urterekin.

Urak dakarrena, urak daroa; zuk ekarritakoa gurekin gelditzen da.



Emazte Carmen; seme-alabak: Pitxu, Marijo eta Xabi; ilobak: Unai, Irati.

BEASAIN
2008ko
apirilaren 23a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Erasoteko bizilagunak telebista dela eta, kezkatuta

Leitza » Urteak daramatzate ETB gaizki ikusiz eta udaletxera behin baino gehiagotan jo duten arren, beraien kezka azaldu dute egoeraren aurrean.

NAIARA GARZIA

Badira zenbait urte Erasoten auzoan ETB gaizki ikusten dutela eta hori dela eta auzo horretako bizilagunek beraien kezka azaldu dute. «Kontua da ETB bereziki gaizki ikusten dugula aspaldiko urteetatik, behin baino gehiagotan esan izan dugu udaletxean eta gero normalean udaletxeokoa dira teknikoari abisatzen diotenak. Nik pentsatzen dut utzikeri dezente daramakitela bai Erasoten, eta oro har baserri auzoetan, Euskal Telebistari dagokionez», dio Eskola etxean bizi den Arantxa Iparragirrek.

Iparragirrek azaldu duenez, ez da udaletxera jotzen duten lehenengo aldia. «Udaletxera joan gara kekatzera, eta udaletxeokoe esaten dute nonbait esan diotela teknikoari, baina kontua da ez dugula hobekuntzarik ikusten».

Leitza Bazarlarako gaineko an-

tenarekin funtzionatzen dute, baina Erasote auzoan Gorritenean dute antena. «Nik pentsatzen dut antena hori gaizki dagoela, eta gure galdera da hori, ea zer gertatzen den Gorriteneko antena horrekin: noiz konpondu behar duten, antena hori berez ez bada konpontzen arazoak izanzen ditugu aurrerantzean ere. Ez digute argibiderik eman. Beraiek esaten duten bezala lan asko badaukate, Udalak egin beharko duena da guri jakinarazi. Ze azkenean, baserriak eta etxeetan gaudenak gara hau sufritzen dugunak».

Iparragirrek adierazi duenez, zenbaitetan hain gaizki ikusten da, itzali egin behar izaten dutela. «Pilota partidak ikusteko eta batzuetan oso gaizki ibiltzen gara, askotan itzali egiten dugu, eta irratia jarri».

Arantxa Iparragirrek TDT-



Eskola izeneko etxean, Tutenean eta Barunen bezalaxe, ez dute ETB ongi ikusten. N. GARZIA

aren inguruan ere bere kezka azaldu ditu. «Beste kontua da TDT deitzen den hori jartzen bada, gu nola gelditzen garen. Orain arte ez dugu inongo hobekuntzarik, utzita egondu gara kristoren denbora pilean eta ez dakigu gerora zer gertatuko den. Suposatzen da esanen dugutela nahitaez behar dugula hargailu txiki bat, beste herriko etxeetan bezalaxe, halere ez dakit horrek arazoa konponduko luke-

en. Hargailua jarri arren, nire galdera da: hemengo antenarekin zer gertatzen da?».

TDT, 'irtenbidea'

Xabier Zabalo Leitza alkateak ere egoera zein den azaldu du. «Kontua da antena oso zaharra dela, orduan irtenbide bat bilatu beharko da antenatik aparte, hori konpontzea diru asko kostako baidateke. Niri eskaera egin zidate-

nean esan zidaten ETB zela ongi ikusten. ETB ongi ikusteko nik teknikoari esan diot berraztertze-rajateko».

Zabaloren iritzi irtenbidea ondorengoa litzateke: «Nafarroako Gobernuak utziko balu TDT an ETB sartzen hori izanen zen irtenbiderik egokiena beraientzat. Hori Nafarroako Gobernuak erabaki beharra du. Ez dut uste antena konpontzea irtenbidea denik».

S Soka motzean

«Kirolarekin hustu edo liberatu egiten zara»

LUIS ARANA
Tabernaria

IMANOL GARCIA

Luis Arana (Hermialde, 1977) Adunako Uztartza tabernan aritzen dalanean.

Tabernaria ez bazina?
Autobus gidaria.

Zer motako autobusa gidatzeko?

Leku ezberdinetara bidaia egiten duenetakoa.

Tabernan, eskatu dizuten gauzarik arraroena?

Sagardotegitik pasa ondoren etorritako batek tabernako edaririk gogorrena ateratzeko eskatu zidan. 90 gradu dituen Strocedaria ateratzen, berez zerbitzatzerakoan erre egiten dena.

Eta zer gertatu zitzaion?

Lurrean etzanda bukatu zuen. Ez zuen berriro eskatu.

Sagardotegietatik jende asko etortzen da Uztartzara?

Asteburuetan beteta egoten da beti.

Tabernari bezala, psikologo lana egiten duzu?

Bai, dexente egiten dugu.

Zaletasunik bai?

Kirolak: bizikleta, mendia, eskia...

Zergatik egiten duzu kirola?

Taberna batek asko estresatzen du. Momentuak daude ez duzuna ezer ez eta beste momentu batzuk daude gehiegi duzuna. Kirolarekin hustu edo liberatu egiten zara.



I. GARCIA

Plazakoan izena emateko epea zabalik

N. GARZIA


XVI. Eskuz Binakako Plazako Txapelketan izena emateko epea zabaldu dute jada. Antolatzaileek azaldu dutenez, «ziurrenik maiztaren 18an hasiko da».

Urtero bezala, txapelketan 15 urtetik gorakoek har dezakete parte, eta izena auto-eskolan edo ondorengo telefono zenbakian eman behar da: 635 71 42 37. Epea maiz-

tzaren 3an amaituko da, 20:00etan, eta bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu.

Joan den urtekoa

2007an 18 bikote inguruk hartu zuten parte orotara, eta Asier Garzia eta Jesus Mari Larraiki izan ziren txapeldunak. Bigarren postuan, Joanes Zeballos eta Mikel Iriarte gelditu ziren.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



14°
9°

GOIZA
ARRATS.
HOTZENA

EGUZKIA
HODEIAK-
BEROENA
HOTZENA

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Ekainaren 1erako artisautila azoka ari dira prestatzen. Parte hartu nahi duenak materiala (egurra, zumea, saskiak, koadro, margolanak, eskualanak, larrua...) Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxera eraman dezala (943 654698).

■ **Berastegi.** Basurde elkarteak XVI. Ibilaldi Neurtua antolatu du maiatzaren 4rako, inguruko mendietan. Izen-ematea, Zelai tabernan, 630 806080 zenbakian, basurde@komunikazioa.org helbidean edo irteeran. Sei ordu eta erditik 8 ordira irauten du.

■ **Tolosa.** Liburuaren Egunaren harira, 3-6 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa saioa izango da Errota Haur Liburutegian, 18:00etan. Liburua hartzen dutenei piruleta emango diete.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatu eta pentiodunen elkarteak irteera antolatu du Atapuercara eta Burgosera maiatzaren 13rako. Izena eman nahi dutenek 30 euro (33 euro bazkide ez direnek) ordaindu behar dute.

■ **Tolosa.** Hilaren 28, 29 eta 30ean 10:00etatik 14:30era ziklotoreen errebisioa egingo da Ferialekuan. Txanda eskatu behar da Udaltzaingoa (943 675858).

■ **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea, 5) edo a.adiskideak@terra.es helbidean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Mendiak zaintzearen garrantzia

Berastegi » Aldin elkarteak antolatuta, mendiak garbitzen aritu dira 16 herritar 'Berastegiko mendiak garbi' lelopean.

ERREDAKZIOA

Aldin elkarteak antolatutako *Berastegiko mendiak garbi* ekimenari erantzunez, 16 lagun elkartu ziren pasa den igandean, «taratean, Udal berriko 3 zinegotzi», mendi garbiketara.

Bi traktore eraman zituzten, Arbidetako eta Etxoinberrikoa, eta Urdiñarraingo Epeletatik Tortoako errekaraino bitarteko basoan aritu ziren goiko pista eta beheko bidearen artean. Goiko pistara igotzeko traktore handian atera zen; beheko bidetik berriz, bi traktore txiki beteak. Zaborra, Eliza ondolan jarritako kontainerretan hustu zuten. Arrateko zentralera, berriz ere joateko asmoa zuten, baina goizean bertan, han zeuden bidoiak jaso zituztenez, azkenean ez joateko erabaki zuten.

Vespa moto zahar bat, sukaldia, garbigailua, mikrouhina, berogailua, hozkailua, kamioi gurrpilak,



Igandean aritu ziren mendiak garbitzen Berastegiko 16 herritar. HITZA

kotxe gurrpilak, jergoia, karretila, aulkia, bidoiak, kaiola, botilak, *sosa caustica*-ko zakua, porlan zakua, jostailuak, bateriak, konketa, komuna, sukaldetako ontzia eta eta mota guztiak plastikokoak bildu zituzten...

Igandean buruturikoa hirugarren saioa izan da, eta ekimenaren helburua, «gure mendiak garbi eusteko ahalegina egiteaz gain, zaborraren kalteen inguruan herri-

arren kontzientzia piztea eta sentibilizazioa bultzatzea izan dira» eta neurri batean lortu dutela azaldu dute Aldin elkarteak.

Hala, urtero egiten duten bezala, Udalarari eskatu nahi diote, «sortu den giroa aprobetxatuz», informazioa dezlara, berriz ere, «irailaren 15ean zabalduko ondo egon zen, baina itxuraz ez da nahikoa izan» nora bideratu behar diren sortzen diren zabor mota guztiak

eta egin dezala ahalegin bat zaborraren mendialdera gehiago eraman ez ditzaten. «Garbiketa saio hau egin behar zen aste berean, traktore bat zaborraz beterik Arratetik mendialdera joan zen, «adierazi dute. Halaber, «Arrateko zentralaren ingurua 2006ean garbitu genuenetik, behin eta berriz zaborra botatzen jarraitu dute, aldamenen dagoen kanalizatutako errekararen bidez», gehitzen dute.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa
h

4 sarrera pare zozketatuko ditugu!
deitu eta eskuratu



BRUESA GBC
Palma Aqua Magica

OSTIRALA

APIRILAK 25-20:30

ILLUNBE